

Euskalingua 29

Aurkezpena

Irakurle on hori,

*Euskalingua 29*k artikulu bat eta komunikazio bat ditu; artikulu prosodiaren arlokoa da eta I. Gamindek hizkuntzaren beraren eragina prosodiaren tasun batzuetan aztertu dau; besteak, J. Iturbek komunikazio antzera idatzita, Era exonimoaz dihardu.

Iñaki Gamindek *Hizkuntzaren eragina prosodiaren tasun batzuetan* izeneko artikulu aurkeztu dau. Bertan maila jasoko testuen prosodian ekoizleak erabiltzen dauan hizkuntzaren eragina aztertzeko, ekoizle berak, Eusko Jaurlaritzako eledun Josu Erkoreka jaunak, hizkuntza bitan, euskarari eta gaztelanian, prentsurreko egoeran ekoiztako testuak landu ditu. Testu horietan sei tasun orokor hartu ditu aintzat, egindako etenak, mugatonaak, talde prosodikoen tamaina, hizketa-abiada, silaba motak eta silaben iraupena tasunak, hain zehatz; sei tasunotarik hamabi ezaugarri neurtu ditu. Neurketa guztien ondorioa da, hamabi ezaugarritik zazpitan agertzen diren aldeak hizkuntzak eragiten dituela, edo bestela esanda, prosodiari hizkuntzak eragin egiten diola. Aztertutako kasuan eraginaren neurria %64,29 da.

Jacinto Iturbek Era exonimoaren ganeko informazioa eman du, alegia, Akitaniako Landetako gaurko Aire-sur-l'Adour delakoari buruzkoa; 1829an argitaratutako elizaliburu batean hiru bider aipatuta agertzen den exonimoaren berri emoten dau, hain zuzen, ikerketagai interesgarri izan daitekeen komunikazioan.

*Euskalingua 29*ko artikuluon gaiei eta eurotarik jaso daitekeen informazioari interesgarri iritziko deusezulakoan, hurrengo zenbakira arte agurtzen zaitugu.

Aulestin, 2016eko abenduaren 23an

Lorea Unamuno lorea.unamuno@ehu.eus

Maribi Unamuno victoria.unamuno@ehu.eus

Koeditoreak